



**BASAURIKO UDALA ETA MENDEKO ORGANISMO
AUTONOMO ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK**

**2016. EKITALDIKO URTEKO KONTU BATERATUAK,
IKUSKARITZA TXOSTENAREKIN BATERA**



**BASAURIKO UDALA ETA MENDEKO ORGANISMO
AUTONOMO ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK**

**2016. EKITALDIKO URTEKO KONTU BATERATUEI
BURUZKO IKUSKARITZA TXOSTENA**



BASAURIKO UDALEKO 2015. URTEKO KONTU BATERATUEI BURUZKO IKUSKARITZA TXOSTENA

BASAURIKO UDALEKO Kontu-hartzaileari:

I. SARRERA

Erantsitako BASAURIKO UDALAREN (Udala aurrerantzean) eta haren mendeko “UDAL KULTUR ETXEA”, “KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA”, “BASAURIKO UDAL EUSKALTEGIA” eta “UDALAREN LAGUNTZA KOMUNITARIOKO ZENTRO ETA AUTONOMIA PERTSONALERAKO EGOITZA” organismo autonomen eta “BASAURI –ETXEBARRI BEHARGINTZA, S.L.” eta “BIDEBI-BASAURI, S.L.” sozietate publikoen, urteko kontu bateratuak ikuskatu ditugu, aipatutako entitateen 2016ko abenduaren 31ko balantze bateratua eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagokion galdu-irabazi kontu bateratua, memoria bateratua, aurrekontuaren likidazio-egoera bateratua eta aurrekontu emaitza bateratuaren eta mozkin bateratuaren arteko kontziliazioa barnean hartzen dituelarik.

Bateratutako entitate bakoitzeko Lehendakari eta Esku-hartzaileak urteko kontuen formulazioaren, eta kasu denean, aurrekontu kitapen ematearen arduradunak dira, aplikagarria zaion finantza informazio esparruan oinarrituta (aurrekontu mugatua duten entitateen kasuan Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak eta Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 28ko 139/2015 Foru Dekretuak, Bizkaiko toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezarritakoa delarik. Bestaldetik, mendeko sozietate publikoek azaroaren 16ko 1514/2007 Errege-Dekretuak onetsitako Kontabilitate Plan Orokorren eta azaroaren 16ko 1515/2007 Errege-Dekretuak onetsitako Enpresa Txiki eta Ertainen Kontabilitate Plan Orokorren arabera eta legezko xedapenek derrigorrezten dituzten kontabilitate gaien arabera aurkezten dituzte beraien urteko kontuak), eta partikularrean, printzipio eta kontabilitate irizpide publikoetan oinarrituta. Era berean, errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez daukaten urteko kontuak eta aurrekontu kitapena prestatzeko barne kontrol egokienaren arduradunak dira. Udaleko Kontu-hartzaileak, erantsitako memoriako 3.d atalean isladatutako irizpide eta prozeduretan oinarrituta, formulatutako eta emandako urteko kontuen eta aurrekontu kitapenen bateratzea burutu du.



II. LANAREN HELBURUA ETA ZENBATERAINOKOA: AUDITOREAREN ERANTZUNKIZUNA

Gure erantzunkizuna, sektore publikoko ikuskaritzarako araudiarekin bat egindako lanean oinarrituta, erantsitako urteko kontu bateratuei buruzko iritzia adieraztea da. Araudi hauek, modu arrazoigarrian, hutsegite esanguratsurik gabeko urteko kontu bateratuak lortzeko helburuarekin, ikuskaritza lana planifikatu eta gauzatzea eskatzen dute.

Ikuskaritza batek, urteko kontu bateratuetan biltzen den informazioari eta zenbatekoei buruz ikuskaritzako ebidentzia lortzea ahalbidetzen duten prozedurak aplikatzea eskatzen du. Aukeratutako prozedurak auditorearen iritziaren arabera dira, iruzurrengatik edo errakuntzengatik urteko kontu bateratuetan hutsegite esanguratsurik egoteko arriskuaren balioztatzea barne. Arriskuaren balioztatzea egitean, kudeatzaileak erantsitako urteko kontu bateratuen prestaketarako eta aurkezpenarako garrantzitsua den barne kontrola kontuan izango du auditoreak, egoeren arabera egokiak diren ikuskaritza prozedurak diseinatzeko asmoz, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko asmoz. Ikuskaritzan ere, aplikatutako kontabilitate-irizpideen egokitasunaren eta kudeatzaileak egindako kontabilitate estimazioen arrazoigarritasunaren ebaluazioa egin behar dira, hala nola, balantze bateratua, galdu-irabazi kontu bateratua, memoria bateratua, aurrekontuaren likidazio-egoera bateratua eta aurrekontu emaitza bateratuaren eta mozkin bateratuaren arteko kontziliazioaren aurkezpenen osotasunaren ebaluazioa ere.

Lortu dugun ikuskaritzako ebidentziarekin salbuespendun ikuskaritza iritzia emateko oinarri nahikoa eta egokia dugula uste dugu.

III. LANAREN EMAITZA: SALBUESPENDUN IRITZIAREN OINARRIA

Txosten honen datan, ondorengoengandik ezin izan dugu egindako baieztapen eskaeraren erantzuna jaso:



- 2 -

- a) Kutxabank, 2016ko abenduaren 31an Kirol erakundearekin izandako banku-eragiketei dagokionez.
- b) Udalaren hartzekodun bat, 2016ko abenduaren 31ko zorraren osaeraren eta data horretan amaitutako ekitaldian hauekin izandako eragiketa - bolumenaren inguruan.
- c) Ekitaldian zehar Udalarekin, eta Kirol erakundeekin harreman profesionalak izan dituzten bi abokatuena, bakoitzengan eragina izan dezaketen erreklamazio, epaiketa edo auzien ondorioz, sor daitezkeen guztizko obligazioak edo hauen ondoriozko pasibo kontingenteen inguruan.

Gainera, gure lanean zehar, aplikatu beharreko kontabilitate printzipio eta irizpideen arabera, erantsitako egoera-orri bateratuen barne hartu beharko liratekeen zenbait doikuntza geratu dira agerian. Jarraian adierazten dira doikuntza horien izaera eta 2016ko ekitaldiko aurrekontu emaitza bateratuan, diruzaintzako gerakin bateratuan eta 2016ko abenduaren 31ko balantze bateratuan:

Kontzeptua	Gehigarria / (Gutxitu) -Euroak-						
	2016ko Ekitaldia						
	Diruzaintz. gerakina	Aurrek. emaitza	Aktibo finkoa	Aktibo zirkulatz.	Pasibo finkoa	Ekitaldiko emaitza	Gainontzeko Berezko Fondoak
UDALA							
Aitortu gabeko 4. hiruhilabeteari dagozkien ur-homiduraren, zabor-bilketaren eta estolderia-zerbitzuaren tasetatik datozen sarrerak	-	-	-	941.706	-	(25.834)	967.540
Ekitaldi itxieran aitortu ez diren eta ekitaldiari dagokion estatuko eta probintziako JEGZren likidazioak	97.848	3.926	-	97.848	-	3.926	93.922
Hurrengo ekitaldian erregistratuak izan diren udal zergetiko (279.781) eta "enpresa hornidura okupazio tasetiko" (82.730) sarrerak	-	-	-	362.511	-	(566.762)	929.273
Ekitaldiari dagokien baina itxiera datan aitortu ez diren obligazioak							
- Su itzaltze foru zerbitzuko ekarpenaren kitapena	(338.532)	4.943	-	-	338.532	4.943	(343.475)
- Ur-horniketa lehen mailako sarea. Abendua	(116.939)	(40.260)	-	-	116.939	(40.260)	(76.679)



Gehigarria / (Gutxitu) -Euroak-							
Kontzeptua	2016ko Ekitaldia						
	Diruzaintz. gerakina	Aurrek. emaitza	Aktibo finkoa	Aktibo zirkulatz.	Pasibo finkoa	Ekitaldiko emaitza	Gainontzeko Berezko Fondoak
- Hiri hondakin solidoen ezabapen. Abendua	(102.158)	(5.386)	-	-	102.158	(5.386)	(96.772)
2016. ekitaldiko "Udalkutxa" likidazioaren erregistroan ezberdintasunak	-	867.282	-	-	-	867.282	(867.282)
Balantzeko "Hartzekodunak" epigrafean erregistratutako baina aurrekontuan aitortu ez diren gastu eta inbertsioak	(165.165)	190.980	-	-	-	-	-
Aurreko ekitaldietatik datozen <i>Lurzoruaren ondare publiko</i> epigrafean saldoen egidako erregularizazioak ekitaldiko ondare-emaitzan	-	-	159.263	-	-	-	159.263
2012. urtean, lehenengo ekarpen moduan, F lursailean udalak duen parte-hartzeari dagokion urbanizazio kargen ordainketengatiko aktibazio falta	-	-	172.594	-	-	-	172.594
GUZTIRA	(624.946)	1.021.485	331.857	1.402.065	557.629	237.909	938.384

Bestalde, Bizkaiko Toki Entitateen Kontabilitate Instrukzioko 6. erregelak ezartzen duenaren arabera, kontabilitate-erakunde bakoitzaren urteko kontu honako hauen arabera eratu eta eman behar dira: Toki-administrazioarako egokitutako Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorraren hirugarren atala eta Instrukzioaren IV. titulua. Alde horretatik, hau jasotzen da plan horretako hirugarren atalean, Urteko Kontuak Egiteko Arauetan: "entitateen urteko kontuek Kontu Planean ezarritako eruedetara egokitu beharko dute". Hala ere, ondare-emaitza ekonomikoaren kontu bateratua (erantsita dago) ez dator bat plan horretan ezarritako eruedarekin, baina gertaera horrek ez du eraginik ekitaldiaren emaitza garbian.

Halaber, erantzitako 2016ko abenduaren 31an amaitutako ekitaldiaren memoria bateratuan hurrengo informazio hutsuneak detektatu dira:

- a) Aitortza- eta balorazio-arauetako 4. oharreko Lurzoruaren Ondare Publikoa atalean, ez da adierazi zer irizpide erabili den narriaduragatiko balorazio-zuzenketak egiteko, eta ez da adierazten ibilgetu materialaren atalean ezarritako irizpide berdinak izango direnik.



- b) Transferentziak, diru-laguntzak eta beste diru-sarrera batzuk ataleko 15. oharrean, ez da adierazi jasotako diru-laguntzak hartzeko eta baliatzeko jarritako baldintzak bete diren ala ez, eta ez da aipatzen zer arautan oinarrituta egin edo eman diren zenbateko handiko diru-laguntzak.

Azkenik, 2007ko abenduaren 21ean Udalak ADIF Infraestructuras Ferroviarias-eko Administrazioarekin eta Bilbao Ria 2000, SA sozietate publikoarekin lankidetzahitzarmen bat sinatu zuen. Horren bidez, aipatutako sozietateari Bidebieta-Pozokoetxe-Lapatza kudeatzeko ardura ematen zitzaion. Hitzarmen horren arabera, Udalak eragiketaren ondorioz lortutako baliabideekin honen bideragarritasun materiala eta ekonomikoa ziurtatzeko konpromisoa hartu zuen. Baina eragiketa autofinantzatzea espero bazen ere, aipatutako sozietateak eragiketa garatzean izan dituen finantza-desfaseak, errekurso propioekin ordaintzen joan da. 2014ko abenduaren 31an, sozietate horri egindako 3.098 mila euroko ordainketak (2014ko abenduaren 31arte ordaindutakoaren berdina) epe luzerako aurrerakintzat hartu dira, eta data horretara erantsitako balantze bateratuko “Finantza-ibilgetua” epigrafean kontabilizatu dira. Horretaz gain, badira enpresa horrek eginiko eta erantzun ez diren 1.361 mila eurotako diruzaintza eskaerak. Udalak 2013, 2014 eta 2015 ekitaldien bitartean gauzatzea espero du. Hala ere, deskribatutako gertaerak ez dira erantsitako memoria bateratuan azaltzen, aurrerakina kitatzeko eraren, unearen eta kopuruaren inguruan, bai eta eragiketa horren etorkizuneko emaitzen inguruan ere, emandako aurrerakinak data horretan erregistratutako zenbatekoetan gauzatu daitezkeen ez jakinik edo adierazitako egoerabalantze bateratuan horniduraren bat erregistratzea bidezkoa litzatekeen. Honen emaitza, entitatearen zuzeneko kontrolaren menpe ez dauden akzio eta etorkizuneko gertaeren menpe dago. Geure 2014. ekitaldiko kontu bateratuei buruzko ikuskapen txostenaren iritziak, honen ondoriozko salbuespena ere barneratu zuen.

IV. IRITZIA

Gure iritziz, “Lanaren emaitza: Salbuespendun iritziaren oinarria” atalean deskribatutako eragin posibleen eta eraginengatik izan ezik, erantsitako urteko kontu bateratuak, alde esanguratsu guztietan 2016ko abenduaren 31an BASAURIKO UDALAREN eta berezko nortasun juridikoa duten udalaren mendeko organismo



- 5 -

autonomoen eta sozietate publikoen (aurreko “I. Sarrera” atalean eta erantsitako memoria bateratuaren 1. oharrean deskribatutakoak), ondare bateratuaren eta finantza egoera bateratuaren irudi fidagarria ematen dute, eta data horretan bukatutako ekitaldiko eragiketen emaitza bateratuarena, aurrekontu likidazio-egoera bateratuarena eta jatorriko eta aplikatutako baliabide bateratuena ere, aplikagarria den finantza informazioaren esparru-araugilearen arabera, eta partikularrean, hauen kontabilitate eta aurrekontu printzio eta irizpideen arabera.

V. IRITZIAN ERAGITEN EZ DUTEN BESTELAKO GAI BATZUK

Erantsitako 2016ko ekitaldiko urteko kontu kontsolidatuak 139/2015 Foru Dekretuan onartutako Bizkaiko toki entitateen Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra aplikatuz egiten diren lehenak dira . Alde horretatik, Foru Dekretu horretako bigarren xedapen iraunkorrean ezarritakoarekin bat etorritik, ez dira aurreko ekitaldiari dagozkion zenbateko konparatiboak jaso kontuetan, eta, aldi berean, memoria kontsolidatuan, “Kontabilitate-arau berrietarako trantsiziotik eratorritako alderdiak” izeneko oharra sartu da. Ohar horretan, besteak beste, honako informazio hauek jaso dira: 2015eko ekitaldiko kontuetako balantze kontsolidatua, ondare emaitza ekonomiko kontsolidatuaren kontua, eta diruzaintzako gerakina. Horrez gain, 2016ko ekitaldiko kontabilitateko hasierako idazpenean ageri diren saldoen eta 2015eko ekitaldiko kontabilitateko itxierako idazpenean ageri diren saldoen arteko bat-etortzea jaso da, bai eta egin diren doikuntzak ere, 2016ko urtarrilaren 1ean erregistratuta gera daitezen indarreko Kontabilitate Publikoko Plan Orokorren arabera aitortu behar diren aktibo eta pasibo guztiak.

Betean Auditoría, S.L.P.

José Ignacio Miguel Salvador

Bilbon, 2017ko ekainaren 29an

Firmado por BETEAN AUDITORIA S. L. P.
el día 24/01/2018 con un certificado
emitido por Herritar eta Erakundeen CA
- CA de Ciudadanos y Entidades (4)



**BASAURIKO UDALA ETA MENDEKO ORGANISMO
AUTONOMO ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK**

2016. EKITALDIKO URTEKO KONTU BATERATUAK

BASAURIKO UDALA

2016ko ekitaldiko kontu bateratuak

BASAURIKO UDALA

Balantze bateratua, 2016ko abenduak 31

(milaka eurotan adierazita)

AKTIBOIA	Oharrak	Zenbatekoa	ONDARE GARBIA ETA PASIBOIA	Oharrak	Zenbatekoa
Aktibo ez-korrontea		151.157	Ondare garbia		146.111
Ibilgetu ukiezina	8	494	Ondarea		36.427
Ibilgetu materiala:	5	135.166	Sortutako ondarea:		109.240
Lurrak		35.358	Aurreko ekitaldietako emaitzak		112.499
Eraikuntzak		41.306	Erreserbak sozietate publikoetan		219
Azpiegiturak		53.935	Ekitaldiko emaitza		(3.478)
Bestelako ibilgetu materiala		4.567	Emaitzei egozteke dauden jasotako diru-laguntzak		444
Ondasun higiezinetakako inbertsioak	7	5.058			
Lurzoruaren ondare publikoa	6	6.909			
Epe luzeko finantza-inbertsioak	10	390			
Epe luzeko zordunak	10	3.139	Pasibo ez-korrontea		6.529
			Epe luzeko zorrak	11	4.735
			Epe luzeko bestelako kontuak	11	1.794
Aktibo korrontea		10.186	Pasibo korrontea		8.703
Epe laburreko zordunak	10	3.008	Epe laburreko zorrak	11	1.673
Epe laburreko finantza- inbertsioak	10	87	Hartzekodunak eta bestelakoak	11	7.030
Dirua eta beste aktibo likido baliokideak	10	7.091			
Aktiboa, guztira		161.343	Ondare garbia eta Pasiboa, guztira		161.343

BASAURIKO UDALA
2016ko ekitaldiko ondare-emaitza ekonomiko bateratuaren kontua
(milaka eurotan adierazita)

GASTUAK	Oharrak	Zenbatekoa	SARRERAK	Oharrak	Zenbatekoa
Gestio arunteko gastuak		51.581	Gestio arunteko sarrerak		47.869
Langile-gastuak: Soldatak, lansariak eta parekoak Karga sozialak	15 b	20.988 16.357 4.631	Zerga- eta hirigintza-sarrerak: Zergak Tasa eta prezio publikoak Hirigintza-sarrerak		21.454 12.250 9.175
Emandako transferentziak eta diru-laguntzak		3.634	Jasotako transferentzia eta diru-laguntzak: Transferentziak	15 a	29
Gestio arunteko bestelako gastu batzuk: Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak Zergak	15 c	22.529 22.518 10	Urteko gastuak finantzatzeko diru-laguntzak Jasotako diru-laguntzen egozteak		26.051 23.394 2.377
Ibilgetuaren amortizazioa		4.430	Gestio arunteko beste sarrera batzuk		280 364
			Gestio arunteko desauurrezkiak		3.712
Ibilgetu ez-finantzarioaren emaitza eta aruntak ez diren bestelako partidak	15 e	304	Eragiketa ez-finantzarioen emaitza		3.408
			Eragiketa finantzarioen emaitza	15 d	70
			Ekitaldiko desauurrezki garbia		3.478

BASAURIKO UDALA

Ondare garbia: bateratutako aldaketa guztien egoera-orria
(milaka eurotan adierazita)

ONDARE GARBIAREN ALDAKETA GUZTIEN EGOERA ORRIA	Oharrak	Ondarea	Sortutako ondarea	Balio-aldak. doikuntzak	Jasotako diru-laguntzak	Guztira
2016ko ekitaldi hasierako ondare garbi doituak	26	36.427	113.058	0	0	149.485
2016ko ondare garbian izandako aldaketak						
Ekitaldian aintzatetsitako diru-sarrerak eta gastuak			(3.478)		444	(3.034)
Erakunde jabearekin edo jabeekin egindako ondare-eragiketak						
Ondare garbiaren bestelako aldaketak			(340)			(340)
Ondare garbia, 2016ko ekitaldi amaieran		36.247	109.240	0	444	146.111

AINZATETSITAKO DIRU-SARRERA ETA GASTUEN EGOERA-ORRIA

	Oharrak	Ondarea
Ekitaldiko ondarearen emaitza ekonomiko bateratua		(3.478)
Ondare garbian zuzenean aintzatetsitako gastuak eta diru-sarrerak		724
Ondarearen emaitza ekonomikoaren kontura eta estalitako partiden hasierako baliora egindako transferentziak		(280)
Aintzatetsitako diru-sarrerak eta gastuak, guztira		(3.034)

BASAURIKO UDALA
2016ko ekitaldiko diru-fluxu bateratuen egoera-orria
(milaka eurotan adierazita)

Kontzeptua	Sarrerak	Irteerak	Garbia
Gestio-jardueren diru-fluxuak	57.458	56.794	664
Inbertisio-jardueren diru-fluxuak	381	2.111	(1.730)
Finantziazio-jardueretako diru-fluxuak	0	1.067	(1.067)
Sailkatzeke dauden diru-fluxuak	3.795	3.395	400
Diru kopuruaren eta diruaren baliokide diren aktibo likidoen handitze/txikitze garbia			(1.733)
Dirua eta bestelako aktiboak ekitaldi hasieran			8.825
Dirua eta bestelako aktiboak ekitaldi amaieran			7.091

BASAURIKO UDALA
2016ko ekitaldiko aurrekontuaren bateratutako likidazioaren egoera-orrria
Gastuen aurrekontu-likidazioa
(milaka eurotan adierazita)

Kap.	Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Konprometitu gabeko kredituak	Konprometitutako kredituak	Aintzatzetsita ko obligazio garbiak	Egindako ordainketak	Ordaindu gabeko obligazioak
I	Langile-gastuak	20.761	1.194	21.956	946	21.010	20.762	20.719	43
II	Erosketak eta gastuak	23.363	635	23.998	783	23.215	22.838	20.117	2.722
III	Finantza-gastuak	173	0	173	55	117	117	110	7
IV	Transferentzia arruntak	2.988	498	3.487	263	3.223	3.221	3.192	29
VI	Inbertsioak	1.105	2.923	4.028	2.544	1.484	1.366	1.075	291
VII	Kapital-transferentziak	265	209	474	61	413	413	407	6
VIII	Finantza-aktiboak	224	4	228	138	90	90	90	0
IX.	Finantza-pasiboak	1.175	0	1.175	0	1.175	1.175	1.068	108
	Guztira	50.054	5.464	55.517	4.791	50.727	49.981	46.777	3.205

BASAURIKO UDALA
2016ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazio bateratuaren egoera-orrria
Diru-sarreraren aurrekontu-likidazioa
(milaka eurotan adierazita)

Kap.	Deskribapena	Hasierako aurrekontua	Aldaketak	Behin betiko aurrekontua	Aintzatsitsita ko eskubide garbiak	Diru-bilketa garbia	Bildu gabeko eskubideak
I	Zuzeneko zergak	11.759	0	11.759	11.523	11.009	514
II	Zeharkako zergak	771	0	771	728	593	135
III	Tasak eta bestelako diru-sarrerak	10.148	0	10.148	9.569	7.998	1.570
IV	Transferentzia arruntak	26.672	889	27.561	26.071	25.532	539
V	Ondare-sarrerak	180	0	180	142	142	0
VI	Inbertsioak besterentzea	300	0	300	269	269	0
VII	Kapital-transferentziak	0	123	123	156	137	18
VIII	Finantza-aktiboak	224	4.451	4.675	112	112	0
IX	Finantza-pasiboak	0	0	0	0	0	0
	Guztira	50.054	5.464	55.517	48.570	45.792	2.778

BASAURIKO UDALA
2016ko ekitaldiko aurrekontu bateratuaren likidazio-egoera
Aurrekontu bateratuaren emaitza
(milaka eurotan adierazita)

	Aintzatsitako eskubide garbiak	Aintzatsitako obligazio garbiak	Aurrekontu-emaitza
Ekitaldiko aurrekontu-emaitza	48.570	49.982	(1.412)
Eragiketa korrontekak	48.034	46.938	1.096
Kapital-eragiketak	424	1.779	(1.355)
Finantza-aktiboak	112	90	32
Finantza-pasiboak	0	1.175	(1.175)
Itxitako ekitaldien aurrekontu-emaitza			(339)
Aurrekontu-emaitza			(1.751)
Finantziario-desbideratze positiboak			(482)
Finantziario-desbideratze negatiboak			234
Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako gastuak			1.665
Aurrekontu-emaitza doitua			(334)

BASAURIKO UDALA

Memoria bateratua

1. Antolakuntza eta jarduera

Basauri udalerria Euskal Herrian dago, Bizkaiko lurralde historikoan, Bilbo hiriburutik oso hurbil. 2016ko abenduaren 31n, ofizialki, 40.876 biztanle zituen.

Tokiko erakundeek berezko dituzten jarduerak ditu Basauriko Udalak ere (Bizkaiko Lurralde Historikoan aplikagarri den indarreko araudiak jasotakoak, hain zuzen ere). Udalaren diru-sarrerara nagusia dira, batetik, Bizkaiko Foru Aldunditik jasotako transferentzia arruntak; eta bestetik, erakundeak berak kudeatutako zerga eta tasetatik eskuratutakoak.

Zerga-ondorioetarako, Udalaren ondare- eta ekonomia-emaitez ez dute Sozietateen gaineko Zerga ordaintzen, eta, jarduera jakin batzuk kenduta, haren eragiketek, oro har, ez dute BEZik ordaintzen.

Bestalde, Udalaren antolakuntza —politikoa eta administratiboa—, tokiko erakundeek izan ohi dutena da. 21 zinegotzik osatzen dute Udalbatza, eta zazpi informazio-batzorde daude (Udala eratzen duten arlo bakoitzeko bat): gizarte-politika; ogasuna eta ekonomia-sustapena; lurralde-politika eta kontratazioa; eraberritzea eta herritarrekiko harremanak; lehendakaritza; giza baliabideak; eta kultura-politika eta euskara.

Batez bestean, 369 langile egon ziren urtean zehar. Abenduaren 31n, berriz, 370 ziren guztira, honelaxe banatuta:

	Udala	Kultur Basauri	Udal Euskaltegia	Etxe Maitia	Basauri Kirolak	Guztira
Funtzionarioak, plaza jabetzan	190					190
Bitarteko funtzionarioak	29					29
Lan-kontratudun langile finkoak		27	18	25	20	91
Aldi baterako langileak	14	12	13	12	10	59
Urteko batez bestekoa	233	39	31	37	30	369
Abenduaren 31n	232	41	31	37	30	370

Honi erantsitako urteko kontu bateratuak Basauriko Udalari, erakunde autonomoei (Kultur Basauri; Basauri Kirolak; Udal Euskaltegia; eta Etxe Maitia) eta mendeko sozietate publikoei (Basauri-Etxebarri Behargintza, SL; eta Bidebi-Basauri, SL) dagozkienak dira.

Aipatutako sozietateetan % 87ko eta % 100eko partaidetza du Udalak, hurrenez hurren. Behargintzan, bestalde, Etxebarriko Udalari dagokio partaidetzaren gainerako %13a.

BASAURIKO UDALA

Memoria bateratua

2. Zerbitzu publikoen zeharkako kudeaketa, hitzarmenak eta beste lankidetzak mota batzuk

Ur-horniketaren, estolden eta hondakin-uren kudeaketaz gain (zeina Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak egiten baitu), ez dago zeharka kudeatutako zerbitzu publikorik, hitzarmenik edota lankidetzak adierazgarriak.

3. Kontuak aurkezteko oinarriak

a) Irudi fidela

Urteko aurrekontu bateratuak Basauriko Udalaren, erakunde autonomoen eta mendeko sozietate publikoen kontabilitate-erregistroetan oinarrituta prestatu dira. Kontu horiek, gainera, aplikagarri diren kontabilitate-arauen arabekoak dira eta, beraz, erakundearen ondarearen, finantza-egoeraren, aurrekontu-egikaritzaren eta eta emaitzen irudi fidela islatzen dute.

Aurreko paragrafoan adierazitako aurrekontuari buruzko informazioak Udalaren eta haren erakunde autonomoen datu bateratuak jasotzen ditu, baina ez mendeko sozietateenak (horiek ez dute aurrekontu-likidaziorik aurkezten, merkataritza-izaera dute eta).

b) Kontu-sailak elkartzea

Balantzea eta ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua hobeto ulertzeko, zenbait epigrafe elkartu egin dira, eta eskatutako azterketak Memoriaren ohar egokietan aurkezten dira.

c) Informazioa alderatzea

2016ko ekitaldiko kontuek —balantzean, ondare ekonomikoaren emaitzetan edota alderatzeko informazioa osatzen duten gainerako kontuetan— ez dituzte islatzen aurreko ekitaldiari dagozkion zenbakiak. Hala egiteko xedatzen du Bizkaiko toki-erakundeen kontabilitaterako arau-esparrua ezartzen duen uztailaren 28ko 139/2015 Foru Dekretuaren 2. Xedapen Gehigarriak.

26. oharrean azaltzen dira 2016ko urtarrilaren 1ean hasitako kontabilitateari lotutako gaiak (aipatutako arau-esparrutik eratorritako kontabilitate-arauen arabekoak).

d) Bateratzea

Urteko kontu bateratuak kontabilitatea bateratzeko irizpide orokorren arabera prestatu dira —batez ere, integrazio globaleko ereduari jarraiki—. Horretarako, bateragarria den perimetroan dauden erakundearen arteko transakzio guztiak ezabatu dira, bai eta ondare-

BASAURIKO UDALA

Memoria bateratua

eragina ere (baldin eta hori Udalak erakunde autonomoei ondasunak esleitzetik badator).

Mendeko sozietate publikoei dagokienez, kontu bateratueterako haien ondare-urritasuna ikusita, balioespen-metodoa erabili da.

e) Memoriaren edukia

Memoriak ez ditu barne hartzen tokiko erakundeen kontabilitate-plan orokorrean aurreikusitako ohar batzuk: jaso beharreko informazio hori, kasua zein den, ez da esanguratsua edo aplikagarria.

Hona hemen bazter utzitako oharrak: finantza-errentamenduak eta antzeko eragiketak (9. zk.); kontabilitate-estaldurak (12. zk.); beste erakunde batzuetarako eraikitako edo eskuratutako aktiboak eta beste izakin batzuk (13. zk.); atzerri-dirua (14. zk.); hornidurak eta kontingentziak (16. zk.); salgai dauden aktiboak (18. zk.); ondarearen emaitza ekonomikoaren kontuaren aurkezpena, jardueraka (19. zk.); eta gordailuan jasotako balioak (22. zk.).

4. Aintzatespen- eta balioespen-arauak

a) Ibilgetu materiala

Ibilgetu materialaren barruan dauden ondasunak balioesteko, kontuan hartu da eskuratze-prezioa edo ekoizpen-kostua. Doan eskuratutako ondasunak izan direnean, eskuratzeko unean ondasun horiek zeukaten benetako balioa da eskuratze-prezioa.

1993ko urtarrilaren 1a baino lehenago erantsitakoak balioetsita daude jada, tasazio-erakunde independente bateko perituek merkatuko balioaren arabera egindako estimazio baten arabera.

Hasieran aktibo bezala onartzen badira ere, ibilgetu materialaren elementuak kostuaren arabera balioesten dira, ostean pagatutakoa aintzat hartuta, eta metatutako amortizazioa eta balio-narriaduragatiko balioespen-zuzenketak kenduta.

Amortizazioaren mende dauden aktiboak berrikusi egiten dira inguruabarrak aldatu eta, horren eraginez, gertatu ahal bada kontabilitate-balioa ezin berreskuratzea. Balio-narriaduragatiko balioespen-zuzenketak egingo dira aktiboaren balio berreskuragarria (arrazoizko balioa) txikiagoa denean amortizazioaren balio garbia baino.

Handitze-, eraberritze- edo hobetze-kostuak aktibora gehitzen dira, ondasunaren balio erantsi gisa, ondasun horren edukiera edo produktibitatea handitzea, edota ondasunaren bizitza baliagarria luzatzea badakarte. Konponketa, ikuskapen edo zaharberritze handiengatiko kostuak aktibatu eta amortizatu egiten dira ondasunen bizitza baliagarrian zehar.

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

Ibilgetu materiala osatzen duten elementuak (lursailak salbu) sistematikoki amortizatzen dira, metodo linealaren bidez, elementu bakoitzaren bizitza baliagarri estimatuaren arabera.

	Urteak
Eraikinak	50
Azpiegiturak	40
Instalazio teknikoak eta makineria	8
Altzariak	8
Informazioa prozesatzeko ekipoak	5
Garraio-elementuak	5

b) Ondasun higiezinetan egindako inbertsioak

Errentak, gainbalioak edo biak lortzeko higiezinak dira: errentamenduan eman, edo besterendu egiten dira, baina horietako bat ere ez da erakundearen xedea. Hemen daude, era berean, ibilgetutzat jo ezin daitezkeen guztiak ere. Ibilgetu materiala balioesteko aurreko atalean jasotako irizpideak aplikatzen zaizkie inbertsio hauei ere.

c) Lurzoruaren ondare publikoa

Lurzoruaren udal ondarean sartutako ondasunak, ondarezko izaera izanik, hiri-lurrean edo lur urbanizagarrian kokatutako lur-sailak eta eraikinak dira. Horien erosteko edo eraikitzeak kostua islatzen du aurrekontuak. Doan eskuratu badira, hori gertatu den uneko salmenta-balioaren arabera kontabilizatuko dira.

Lurzoruaren udal ondarearen barruan dauden ondasunak metodo linealaren bidez amortizatuko dira, hain zuzen, ibilgetu materialaren barne sartutako ondasunen bizitza baliagarriaren arabera.

d) Ibilgetu ukiezina

Diruzkoa ez den balioespen ekonomikoaren xede izan daitezkeen, eta itxura fisikorik ez duten ondasun ukiezinak eta eskubideak dira. Denboran zehar irauten dute, ondasunak edota zerbitzuak ekoizteko erabiltzen dira, edota erakundearen baliabide-iturri dira. Identifikagarriak ere badira.

Ibilgetu materialaren barruko ondasunak balioesteko erabilitako irizpideen arabera balioetsiko dira ondasun hauek ere.

Amortizazioa metodo linealaren arabera kalkulatu da, honako bizitza baliagarri honen arabera:

BASAURIKO UDALA
Memoria bateratua

	<u>Urteak</u>
Informazio-prozesuetarako ekipoen softwarea	5
Bestelako ibilgetu ez-materiala	10

e) Finantza-aktibo eta -pasiboak

Finantza-tresnetatik eratortzen dira finantza-aktibo eta -pasiboak: alderdietako bati eskubide bat ezarri (finantza-aktiboa), eta besteari obligazio bat (finantza-pasiboa) edo ondare garbiaren osagai bat (ondare-tresna) esleitzen diote. Horien sailkapena, balioespena eta kontabilizazioa, berauek mantentzen dituen edota jaulkiak izan ziren xedea aintzat hartuta egiten da, batik bat.

Finantza-aktiboak:

Finantza-aktiboak dira eskudirua; beste erakunde baten kapital edo ondare garbi tresnak; hirugarren batengandik eskudirua edota bestelako finantza-aktiboa jasotzeko eskubidea; edota, erakundearentzat ustez onuragarriak diren baldintzetan, hirugarren batekin finantza-aktiboak edo -pasiboak trukatzeko eskubidea. Finantza-aktiboak balioesterakoan, honako sailkapen honi jarraitzen zaio:

- Kobratzeke dauden kredituak eta partidak.
- Epemugara arte mantendutako inbertsioak.
- Emaitzan aldaketak izan dituzten finantza-aktiboak (arrazoizko balioarekin).
- Taldeen, multitaldeen eta horien kide diren erakundeen ondarean egindako inbertsioak.
- Salmentara bideratu ahal diren aktiboak.

Balantzean finantza-aktiboa islatuko da baldin eta obligazio-iturria bada, hura formalizatzeko kontratu edo itunaren klausulen arabera.

Kobratzeko dauden kreditu eta partiden, epemugara arte mantendutako inbertsioen eta emaitzetan trukatzekoak diren (arrazoizko balioan kontabilizatutako) finantza-aktiboen hasierako balioespena, horien arrazoizko balioan egingo da; kontrako frogarik ezean, transakzioaren prezioa izango da arrazoizko balio hori.

Hala ere, epe luzera kobratzekoak diren eta kontratuzko interes-tasarik ez duten partidak, hasiera batean, beren balio nominalean balioetsiko dira; diruz lagundutako interesekin epe luzerako emandako maileguak, berriz, emandako zenbatekoan balioetsi ahal dira.

Ekitaldia ixtean egingo dira balioespenetan egin beharreko zuzenketak. Halakoak egin behar izaten dira etorkizunera estimatutako eskudiru-fluxuak gutxitu edo atzeratu ahal dituzten gertaerak ematen direnean (adibidez, zordunaren kaudimengabezia).

Taldeko eta talde anitzeko erakundeen, eta horien kide diren erakundeen ondarean egindako inbertsioen kasuan, hasierako balioespena kostuarena izango da; gerora, kasua

BASAURIKO UDALA

Memoria bateratua

denean, kostu horri kenduko zaio balio-narriaduragatiko zuzenketen zenbateko metatua, baldin eta argi badago inbertsioaren kontabilitate-balioa ezin izango dela berreskuratu.

Salmentarako finantza-aktiboak, beren aldetik, arrazoizko balioaren arabera balioetsiko dira hasiera batean. Arrazoizko balio hori, kontrako frogarik ezean, transakzioaren prezioa izango da. Gerora, unean uneko arrazoizko balioaren arabera balioetsiko dira, eta ondare garbian zuzenean erregistratuko dira bertan ematen diren aldaketak.

Aktibo horiei balioa esleitu behar zaienean (besterentzeko, edota beste edozein arrazoi tarteko), talde homogeneo bakoitzerako batez besteko kostu haztatuaren metodoa aplikatuko da.

Ekitaldiaren amaieran, gutxienez, beharrezko balio-zuzenketak egin beharko dira, baldin eta froga objektiboren batek islatzen badu saltzeko dauden finantza-aktiboen balioa narriatu egin dela, etorkizunerako aurreikusitako eskudiru-fluxuak gutxitzea edo atzeratzea eragin duten gertakarien ondorioz.

Azkenik, erakundeak finantza-aktibo baten edota horren zati baten baja erregistratuko du hura iraungitzen denean, edota finantza-aktibo horrek sortutako eskudiru-fluxuaren gaineko eskubideak zein haren jabetzari lotutako arriskuak eta abantailak eskualdatu direnean.

Finantza-pasiboak:

Kostu amortizatuko finantza-pasiboen kategorian sailkatzen dira finantza-pasibo guztiak. Honako hauek barne hartzen dituzte:

- Ohiko jardueratik eratorritako eragiketengatik ordaindu beharreko zorrak eta partidak.
- Zorrak kreditu-erakundeekin.
- Jaulkitako balore negoziagarrietan gauzatutako zorrak.
- Ordaindu beharreko beste zor eta partida batzuk.

